

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea igaro eta erreklamazio-rik edo oharrik aurkeztu ez denez, irmo eta behin betiko bihurtu da Udalbatzak 2023ko abenduaren 21ean hartutako hasierako erabakia, honako hauek aldatzeari buruzkoa.

— Zerbitzuak eskaini edo udal iharduerak burutzeagatik ezarritako prezio publikoen ordenantza arautzailearen 8.3 atala eranskinean azaltzen diren zehaztapenetara aldatu.

*Zerbitzuak eskaini edo udal iharduerak burutzeagatik ezarritako prezio publikoak.*

8.3. 5. Udal eraikinetan antolatutako kultur ekimenak.

Ordainduko den sarreraren kalkulua egingo da ikuskizuna eskainiko duen taldearen ordainsariaren arabera (BEZ gabe):

- 2.000 euroraino: sarrera: 5 €.
- 2.000-5.000 euro bitarte: 8 €.
- 5.000 eurotik gora: 12 €.

Helburutzat ondorengo interes soziokulturaleko arloak sustatzea helburu duten kultur ekimenentzat sarrerak txikitu edo doan izan daitezke denentzat edota kolektibo zehatzentzat: parekidesuna, drogomenpekotasunaren prebentzioa, familia eta gazteria eta euskara sustatzea eta transmititzea.

Ikuskizunaren kostua kontuan izanik, antolatzen duen batzordeak tarifa horiek 20 eurora arte igotze ko erabakia hartu ahal izango du.

Hori guztia uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16.4 artikuluan agindutakoa betez ematen da argitara, denek jakin dezaten eta aipatutako aginduan aurreikusitako gainerako ondorioetarako.

Aipatutako Foru Arauak 18.1. artikuluan xedatzen duenarekin bat, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Zerga Ordenantzaren aldaketak onartzen dituen erabaki horren aurka EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango dute, aipatutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Dena dela, eta aipatutako aginduak baimentzen duen moduan, administrazioarekiko auzi-bideari ekin aurretik, interesdunek, nahi izanez gero, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan erreklamazioa jarri ahal izango dute hilabeteko epean, argitalpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Mendaro, 2024ko martxoaren 11.—Enez Ezenarro Arriola, al-  
katea. (1810)

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo inicial adoptado por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 21 de diciembre de 2023.

— Modificar el apartado 8.3 de la Ordenanza reguladora de precios públicos por prestación de servicios o realización de actividades municipales a las especificaciones que figuran en el anexo.

*Precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.*

8.3. 5. Iniciativas culturales organizadas en edificios municipales.

El cálculo de la entrada a pagar se hará en función de la retribución del equipo que ofrecerá el espectáculo (sin IVA):

- Hasta 2.000 € de ingreso: 5 €.
- Entre 2.000 euros y 5.000 euros: 8 €.
- Más de 5.000 euros: 12 €.

Las iniciativas culturales que tengan como objetivo la promoción de las áreas de inspiración sociocultural de la paridad, la prevención de las drogodependencias, la familia y la juventud y la promoción y transmisión del euskera podrán ser minoradas o gratuitas de forma generalizada o para ciertos colectivos.

En función del coste del espectáculo la comisión organizadora podrá acordar el incremento de estas tarifas hasta un máximo de 20 €.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra el expresado acuerdo aprobatorio de modificación de las Ordenanzas Fiscales, los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del siguiente día hábil al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Ello no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Mendaro, a 11 de marzo de 2024.—El alcalde, Enez Ezenarro  
Arriola. (1810)